

IGESKARIA

Eldu zan udabarria, dotore ta panpoix; izadi guztia soñekorik eder dirdaituenez jantzia egoan, amesti ta lillurakor. Lorak, txit jagi ta zut, euren kolko guriak zabal-tzen ebezan euri ta eguzkiaren ikutu goxoak artzean. Eta gero, zelako usain ezta bial-tzen eben, ara ta ona!

Zelai eze artean, errekatxo baten alboan jesotako etxe zuri baten sendi txikia bizi zan: aitaita ta umetxo bi.

Etxe ori etzan gaurkoa, antxiñako jaun batzuena baiño. Eta laster igarri zeikean etzala etxe a besteen antzekoa, ta bertan bizi ziranak etzirala, ain zuzen be, bada-espadoak baserriart batzuk. Olako andiki-lurruna erion nainundik, Leiotetatik zear, godotar egikera zarrekoak nunbait, barruko areto zabalak ederto ikusi leikezan; orduan baldar samar aurkitzen ziran arren, bertan-ño apaindura ta erredizeari begiratu ezker, beñola oso eder ta zoragarriak izan zirala emoten eben. Ezker-eskuma antzelan bikai-ñak besterik etzan ikusten: lauki, txarro, eun, tresna ta kaxa zar biliotsuak. Armarrí bat be bai ikusi zeikean, erredola, ingun, espata, iskillu-oskol ta gainetiko milla gau- zuz nastean.

Etxe artako iru hiztanleak eroen bizitza etzan, egia esan, guk uste geinken lakoxea; ez-euki gorrian bizi ziran. Erririk baztertu samar, oso nekez egiten yaken bear-bearre- go ebena eskuratzea be. Beraz, etxean ogia egin bear, lurrak landu, abere ta piztiak zeindu ta abar. Labur: euren ardura ta la- nez jatekoa irabazi bear.

Iñaki'k amabi urte egiñak ebazan, eta amesetan lez gogora ekarten zituan bere gu- rasoak eta ain zorientsu izan ziran antxiña- ke egunak. Edurne neskatoak, baiña, ez ehan ezertxo be gogoratzen, ango lurralde osoa ondatu eban gerra zakarra sortu za- nean, bada, jaiobarri zenduan oraindik: gu- rasoak orduantxe il yakozan. Aitaitak sari esan eutsen, su-ondoan, jazo zan guztia.

—Doatsu bizi gintzazan etxean, geure au- rretikoen solo ta landak zaindu ta golde- tuaz. Emen inguruko gizonik nagusiena zan zanon aita, eta eguzkia baizen ezti ta ongi- llea zan zuen amatxo maitegaz ezkondu zan. Etxe onek zeru txiki bat zirudian; gu- re gauza guztien arreta eben morroi-neska-

meak geunkazan, eta ezin obeto bizi ginean.

«Guda sortu zanean, zuen aita aberriaren alde urten ziranetatik lenengoa izan zan, baiña etsaimende jausi, zoritxarrez. Arrez- kero ez dogu bere barririk izan. Gerrea emaitutakoan, danak itzuli ziran euren etxe- etara, Bitor gaixoa ezik. Zuen ama, ainbes- teko oiñazea eroan eziñik, naigabez il zan; irurok bakarrik eta ezer бага itxi ginduzan, etxeko morroi-neskameak be ba iges egin eben, zor yakena ordaintzen ez geuntselako.

Malkoz busti ziran, mara-mara, zartxoar- ren begiak. Atsekabe anditan egoan, eta gei- tuz yoakon berau umezurtz biak onen soil eta uts ikusirik.

—Ez egizu negarrík egin, aitaita—zirau- tsen Iñakitxo'k—; azitxoá naz gaurgero, bear eringo dot gogotik eta ez dogu ezeren utsik izaneó.

Orrela egin oi eban; eguna argitzera or- duko jagi ta gautu arte lanari ekiten eu- tson, aspertu barik. Edurne'k etxeko zere- giñak pozik eta maratz egiten ebezan. Etxe erdia lez zarratuta eukien, irurentzat gela- txo bi, eskaratza ta onako zertxo batzuekaz naiko eben-eta.

Baiña, luster, bertan-bera itxi bear izan eben antxiñako jauregia. Eta neke-egunak be joan ziran betiko. Aitaita oso makal egoan eta ogean sartu bear, biziko ba'zan. Zuzt biak urreneko urira eroatea erabagi eben, osagille on batek ikusi egian: bai ta eroan be. Etxean eukien burditxoan, *traka, traka, traka*, urirantza abiatu ziran.

Oindiño bide erdira barik, itzetik ortzera, intziri txit erdiragarri batzuk entzun eba- zan. Iñaki burditik jatsi beingoan eta ulu areik etozan sasi artera zuzendu zan; zur ta arri geratu zan, bernan zauri andia eukan gizon bat ikusirik.

Edurne'ri dei egiñik, bien artean lagundu eutsoen zauritu gaixoari: zauria garbitu ta aldean ekarri eben edari bizkor bat emon eutsoen edateko.

Bidazti ez-ezaguna guztiz txarto egoan, itxuraz; angaitik, ume biak eurak eroango ebela uriraiño esan eutsoen, burditxoan ar- tuta.

—Eskerrik asko, txiki maiteak, baiña ezin naiteke joan, igeskari, bat nozue-ta: surkituko ba'nindue, eriotz-epaia emongo

leuskide. Joan zuok, naikoa bait-dozne egin orainarte be nire alde.

Itiaki'k eta Edurne'k aitaitari edestu eutsoen gertatua; bai ta arrek zer egin leikeen adi-crazo be. Jatekoak itxi entsoezan, eta urrengo egunean, uritik biurtzean, eurekaz erango eben etxera.

Esan eta egin. Urrengo egunean be, antxe bertan idoro eben erdi txolindua.

Edurne'k, etxera elduaz batera, zauritua-
rentzat oea gertatu, sua ixetu ta aparria aton-
du eban, Itiaki'k aitaitari ta zaurituari oian
sartzen laguntzen eutsen artean.

Igaro ziran egun batzuk, eta, bien bitar-
tean, zaurituak onera egin eban, oso bizkor.
Laster asi zan umetxoai laguntzen, egurra
txikitu, beiak eratzi ta abar...

Aitaitak oian jarraitzea eban, atsekabez
beterik.

—Ni enaxenean, nok zainduko ditu ume-
txo bi orreik!

Auxe zan bere naigabe andia, onexek eu-
kan kezkatu; eta gou baten, apari bitar-
tean, arrotzari edestu eutsen etxe aretako
zoritzarra, batez be bere semea aldendu zan
ezkerotik.

—Ez dogu geiago areu barririk izan. Ene
seme gaixoa!

Bere salbagilleak ziran areik itlotsena en-
tzunik, oso aldatu jakon arpegiko kolorea
gizon arrotzari; eta barruan eukan naigabea
igarri ez egioen, maitik jagi ta andik alde
egin bear.

Arrezkero, gutzit bestelakoa zan gizon
aren jokabidea; umeakin ez eban, geroztik,
ez berbarik ez barrerik egiten, bere barru-
atskabera gordē naita lez.

Alako goiz baten, osterā, Itiakitxu jagi
zinean, arri geratu zan stea zabalik ikusi-
ta. Arrotzaren gelara joan zan, baiña an
etzegoan. Jantokiko mai gainean, osterā,
karta bat; artu ta irakurri eban Itiakitxu'k;
onela itoan:

«Ezin naz bizi luzaroago etxe onetan, mai-
tasunak bizi-naia sortu daustan txoko bero
onetan. Nire betebearra auxe da; zuon aita
onez atara; bizi da, ba, et ba-dakit nun' da-
goan. Eskatu Jaunari arazo ontan lagundu
dagiskun. Esker onez, Lonar.

Aitaitak ezin eban sinistu eskutitzak
itioana. Ainbat denporan, zelan etxakon el-
du semearen barririk?

—Ene seme maiteok, ez egizne ames la-
rregirik egin; gunean be, ez dakigu ezer
arrotz onen bizitzaz, eta ziria sartu leike-
gum.

—Ez, aitaita. Lonar on utsa dogu ta ezin
leikegun, ezlan be, ziririk sartu gauza orre-
tan.

Itiaki ta Edurne ez etozan bat aitaita,
eta, poz-esnetan, etxe andiki atako leioak
edegi ta barruko auts gutzia astindu ebela
euren biotz-ixokoan uste eben, ba, aita bizi
yakela, eta ez eutsen ustel urten barneko
sen gartsu orrek.

Illuntze baten, aitaitak bere gau-otoitzak
astean eta Itiakitxo'k eta Edurne'k aparria
gertetan inarduela, atean deia abots erdira-
garri baten intziria entzun ehen:

—Aita, ene semeak, zabaldu egidaxue!

Irurak aurkitu ziran, estu-estu, biotz-ika-
raz edegi ezin eben ateko morroilean esku-
ak ebezala. Azkenez, besarkada gogorbera
betean batu ziran laurak, pozaren pozez na-
gura erioelarik.

—Ameza dirudi! Ameza dirudi! —itoan
negar artean aitaitak.

—Bai, aita, amesa dirudi, baiña egia da;
emen naukazue, ta ba-dakit ondu be zen-
baterainoko estularriak eroan dozuezan; bai-
ña ori joana da, onekero.

—Aitaita, arrotzak egia esan euskun!
—oiu zaratuka Itiakitxu'k.

—Bai, ene seme, oiaxe zan! —baitu
eban aitak—. Zuok osatu ta jaso zenduen
gizona, atxilo egoan gadari-buru bat zan.
Iges egiterakoan zauritu eben, baiña areu
jazarleak zorionez okerreko bidea artirik
galdū egin ziran, eta gero zuok idoro zen-
duen gizon esetsi ori. Orri eskerrak, muga
igarō ta ni askatutera etorri al izan eban,
zaldun altsua dozne-ta.

—Eta ez jaku itzuliko? —Edurne'k itoan.

—Ez, alabatxo; azke biziko da bere ahe-
rrian, an bait-daukez emaztea ta lau seme-
alaba.

—Eskerrik asko, ene Itiaki! Orain gertu
naukazu ilteko be! —ots aitaitak.

—Nok diño il? Ene aita, bizi barrin as-
ten dogu oraintxe, eta zuen amak, seme mai-
teak, zerutik bedeintatuko gaitu.

Eta, oso zoriontsu, luzaroan bizi izan zi-
rean.

1007

